



Arartekoaren 2016R-1387-15 Ebazpena, 2016ko abuztuaren 16koa. Horren bidez, Gernika-Lumoko Udalari gomendatu zaio, indarreko ordenantzaren arabera, espazio publikoa terrazekin okupatzeko baldintzak betearaz ditzan.

Aurrekariak

1. (...) jaunak kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean, Gernika-Lumoko Udalak eskurik hartu ez zuelako terrazen udal ordenantza betearazteko.

Pertsona horrek azaldu zuen (...) kaleko (...) bizi zela eta kale hori oinezkoentzako zela; bertan, gutxienez, bost terraza zeuden instalatuta, eta ez zen betetzen espazio publikoaren okupazio horiek arautzen dituen ordenantza. Gainera, ez zitzaizela biderik eman hori ez betetzearen ondorioz 2014ko urriaren 14tik aurkeztutako idazki ezta salaketei; berak jarri zituen horietako batzuk eta eragindako auzotarren talde batek beste batzuk.

Zehazki, salatu zuen terrazetako altzariek ez zutela betebeharrak bat betetzen, hain zuzen ere, bi metroko pasabidea mantentzekoa, oztoporik gabeko fatxadaren lerrotik zenbatuta. Horrekin guztiarekin, gune horretako auzotarrek, erabilera horiek eragindako eragozpenak eta deserosotasunak jasateaz gain, zailtasunak zituzten etxebizitzetara sartzeko. Bestalde, udalaren aurrean salatu zuen ez zirela betetzen udal ordenantzak ezarritako terrazak instalatzeko ordutegiak; hala, ez du erantzunik ezta informaziorik ere jaso salaketa horiei aurre egiteko burutu ziren jardueren inguruan.

Auzotarrek jasaten zuten egoerari dagokionez, interesduna kexatu egin zen eta adierazi zuen alkateak, 2008an, kale hori eta ondoko beste batzuk oinezkoentzat egin zirenean, adierazi zuela, Europako beste hiri batzuetan bezala, oinezkoentzako guneen alde egin nahi zuela, pertsonengan eta ingurumen-kalitatean pentsatuz. Interesdunak uste zuen hori oso urrun zegoela errealitatetik; izan ere, espazio publikoa negozio hutsa bihurtu zela, eta ez zeukala zer ikusirik oinezkoentzat egitearekin, gune horretan bizi ziren herritarren bizi-kalitatearekin, ezta ingurumen-kalitatearekin ere.

2. Kexa hori ikusita, 2015eko abuztuaren 14an, erakunde honek informazioa eskatu zion Gernika-Lumoko Udalari. Beste gauza batzuen artean, kexa aurkeztu zuen pertsonak egindako salaketei emandako bideari buruzko informazioa eskatu genuen (zehapen-espeditentea, izapidetutako erantzunak, ikuskapen-aktak, etab.). Horrez gain, udal ordenantza betetzeko hartutako neurri zehatzen berri emateko eskatu genuen.
3. Erantzunik ematen ez zutenez, 2015eko urriaren 5ean, Arartekoak errekerimendu bat bidali zion udalari; horrek 2015eko urriaren 7an jasotako idazkiaren bidez erantzun zuen (hala ere, data aurreko urriaren 1ekoa zen).





Interesdunak jarritako salaketen kopia bat bidali du udalak, baita gai horretaz egindako jarduerena ere. Era berean, hauxe adierazi du: *"Halaber, Ordenantza bete dadin, terraza eta mahaitxoak zuzentzen dituen araudia betetzeko eskaria egingo zaie (...) kaleko (...) inguruan dauden tabernei eta kafetegiei"*. Erantzun hori ikusita, 2015eko urriaren 20an, Arartekoak berriro ere eskatu zion informazioa udalari; horrela, emandako dokumentazioari buruzko gogoetak helarazi zizkion, gero adieraziko ditugunak, ez errepikatzearren. Gogoeta horiekin bat etorritz, hauxe eskatu genion Gernika-Lumoko Udalari:

"Ildo horretan, berriz ere eskatu behar dizugu informazioa aurkeztutako salaketei emango zaien bidearen inguruan (zehapen-espeditentea, bideratutako erantzunak, ikuskapen-aktak, etab.), baita ordenantzak betearazteko hartu diren berariazko neurrien inguruan ere.

Edonola ere, gure iritzia emateko egokitzat jotako agiriez gain, ikuskaritza-zerbitzu eskudunak eginiko balioespen-txostena dagokion argazki-erreportajearekin eskatzen dizugu, (...) kaleetan dauden ostalaritza-negozioetan salatutako kontuei dagokienez, terrazei buruzko ordenantza nola betetzen ari den ikusteko.

Halaber, eskatzen dugu jarduerak kontrolatzen eta ikuskatzen dituzten zerbitzuen txosten berezia, aipatutako kaleetan dauden eta kalera ematen duen leihoren bat duten ostalaritza-negozio guztiei buruz; gainera, txostenak jaso beharko ditu ezarritako neurri zuzentzaileak, eta balorazioa, ea tabernetan neurri horiek benetan betetzen ari diren, auzokoei zarata-eragozpenik ez sortzeko moduan.

Bukatzeko, udalerriko terraza eta mahai hankabakarrekoen gaineko ordenantza betetzeari dagokienez, iragarritako errekerimendu-planari buruzko aurreikuspenak ezagutu nahi genituzke, bereziki, salatutako guneei dagokienez (aurreikusitako epeak, egin diren edo egiten ari diren ikuskapenak, etab.)"

4. Aurreko eskaerari erantzuten ez ziotenez eta udalari 2015eko azaroaren 26ko idazkiaren bidez errekerimendu bat egin ostean, idazkari nagusiak sinatutako 2015eko abenduaren 4ko jakinarazpen bat jaso genuen; bertan, hauxe adierazi da: *"Kontrol Zerbitzu eta Ikuskaritza Teknikorako arduraduna bajaran dagoela aldi baterako Bitarteko Ezgaitasunagatik. Beraz, eskatutako balorazio txostena eta argazki erreportajea instituzio horretara bidaliko dira zu lanera bueltatu bezain laster."*
5. Udalaren azkenengo jakinarazpenetik hiru hilabete baino gehiago igarotakoan eta izapiderearen inguruan galdetzeko egindako telefono bidezko kudeaketak alferrekoak izan zirenez, Arartekoak, 2016ko martxoaren 23an, berriro ere egin zuen aurreko eskaera idatziz.





6. Errekerimendu berri baten (2016ko maiatzak 23) eta ohartarazpen baten ostean (2016ko uztailak 8), Gernika-Lumoko Udalak, 2016ko uztailaren 18ko idazkiaren bidez, udal administrazioak (...) kaleko eta ondoko kaleetako taberna eta kafetegien titularrei bidalitako jakinarazpenen kopia helarazi zuen. Hauxe da udalak interesdunei bidalitako jakinarazpenaren eredia:

“Lurralde Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren 68/2000 Dekretua bete nahi da, hiriguneko, esparru publikoko, eraikinetako eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzetarako arau teknikoak onartzen dituena. Aldi berean, bete nahi dira Terraza eta mahaitxoak arautzen dituen Udal Ordenantza eta Arartekoaren errekerimenduak.

Idatzi honen ildotik:

Beraz, errekerimendua egiten zaizu zolu publikoan dauden zure jabegoko altzariak kentzeko, fatxadatik bi (2) metrorako gunea oinezkoentzat libre gera dadin, Ordenantzan bertan zehaztutako gainerako arauak betetzea salbu.

Horrela egin ezean, Terraza eta mahaitxoak arautzen dituen Udal Ordenantzan Administrazioak kasu hauetarako ezarritako zigorrak aplikatuko dira.”

Gogoetak

1. Lehenengo eta behin, aurrekarietan aipatu ditugun inguruabarrak direla-eta, ezin zitekeelako bestela izan, Gernika-Lumoko Udalaren jarrerari buruz aritu beharra daukagu, bai Ararteko erakundearekiko eduki duen jarreraz, bai udalaren jarduera zehatz bat eskatu duen pertsonarekiko eduki duenaz. Kexagileak udalaren jarduera hori eskatu du ostalaritza-establezimendu batzuek espazio publikoa okupatzeko baldintzak betetzen ez dituztelako jarritako salaketan aurrean.

Zentzu horretan, Gernika-Lumoko Udalak erakunde honekin eduki duen lankidetzarik eza salatu behar dugu, guk eskatutako datuak, dokumentuak, txostenak edo argipenak lehentasunez eta premiaz emateko legezko betebeharraren aurkako izan baita bere jarduera, (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 23. artikulua). Laburbilduz, aurrekarietan azaldutakoaren arabera, udalak ez ditu bete erakunde honekiko dituen legezko betebeharrak. Izan ere, ia urte bat igaro da kexa hau izapidetzen hasi ginenetik, eta egindako errekerimenduen aurrean jarduten eta erantzuten dutela ematen badu ere, errealitatean, ez da esku-hartze irmorik burutu berezko eskumenak baliatuz.





2. Bigarrenik, izapidetutako kekek salatzen duen arazoa kokatzeko, galde daiteke zenbateraino diren bateragarriak terrazak irabazteko asmoarekin instalatzea eta jabari publikoaren erabilera publiko orokorra. Horretarako, erakunde honek adierazi du udalek beti hartu behar dutela kontuan espazio horien helburu nagusia. Hori jaso da ebazpen honetan: **"Arartekoaren 2015eko urriaren 28ko 2015R-205-15 Ebazpena; horren bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio espazio publikoaren ordenantza betetzeko terrazan instalazioan."** (testu osoa www.ararteko.eus helbidean dago). Ebazpen horretan erabileren bateragarritasunaren arazoa aztertzen genuen, termino hauetan:

"Udalek izugarrizko ahalegin inbertsorea egin dute pertsonentzako kalitatezko espazio publikoak hobetu eta berreskuratzeko. Horrela, beste neurri batzuen artean, hauek aipa ditzakegu: urbanizazioak eraberritzea oinezkoen ibilbideen irisgarritasuna hobetuta; oinezkoen mugikortasuna sustatzeko espaloiak zabaltzea; hiriko altzariak hobetzea; hiriko erdiguneko eremuak oinezkoentzat jartzea eta abar.

Hala ere, oinezkoentzako espazioa irabazteari bideratutako neurri publiko horiek guztiak, mugikortasun jasangarria sustatzeko politiken baitan kokatu beharrekoak, kontraesanean sartzen dira, antza, terrazak eta mahaitxoak ugaritzearekin (beste elementu eta instalazioen artean); izan ere, berreskuratutako espazio publiko berriak inbaditzen dituzte terrazek, pertsona guztiek erabilera komun orokorra egitea mugatuz hein handi batean, oztopatuz ez bada."

Gomendio horrek hauxe ere adierazi zuen:

"Terrazak eta mahaitxoak hiriko paisaiaren zati dira, bai eta ostalaritzako zerbitzuak emateari lotutako elementua ere, eta aisialdiko instalazio horien ohiko erabiltzaileek ateratzen diete onura. Hala ere, udalek ezin dezakete ahaztu herritar guztienak diren espazioen erabilera pribatiborako baimenak direla, irabazi-asmoa dutenak.

Laburbilduz, kontu hori jorrazteko unean, ezin daiteke espazio publikoaren izaerari buruzko multzo ikuspegia alboratu, ez eta erabilera komuna baztertzen duten terrazan erasana ere, bereziki aipatuz bai alboko auzotarrak, bai baimendutako erabilera pribatiboa ostalaritzako irabazi-asmoko zerbitzuak emateari lotuta dagoela."

Azaldutako arazoa kokatuta, erabilera orokorreko espazio publikoa eta irabazizko erabilerara bideratutako espazioa desberdindu behar dira; horrela, terrazako bezeroen erabilerak ez du oztopatuko pertsona guztien gozamena. Horregatik, ondoko auzotarren eskubideak behar bezala bermatzeko neurriak hartu behar dira.





3. Gernika-Lumoko Udaleko Terraza eta Mahai Hankabakarrekoen gaineko Udal Ordenantzak 13. artikuluan ezartzen du (...) kalea bezalako oinezkoentzako kaleetan:

*"1. Baimendutako instalazioa (mahaiak eta aulkiak) erantsitako dokumentazio grafikoan azpimarratutako guneari egokitu beharko zaio eta ezingo du inolaz ere zehaztutako hamar (10) metroko luzera eta hiru (3) metroko zabalera gainditu. **Horiek horrela, bermatu egin beharko da fatxadatik hasi eta oinezkoentzako bi (2) metroko pasabidea**".*

Baldintza hori ezartzen da gai horren gaineko erregulazioak hiriguneko irisgarritasuna bermatu nahi dielako mugikortasun arazoren bat duten pertsona guztiei, baita komunikatzeko edo bestelako edozein mugaketa psikiko dutenei edo zentzumen urritasunen bat dutenei ere (Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/2007 Legearen 1. artikulua).

Aipatutako legea garatuz, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen ditu. Hemen interesatzen zaizkigun xedeetarako, hauxe ezarri du hiriguneetako irisgarritasunaren gaineko baldintza teknikoei buruzko II. eranskineko 4.2.1.5. artikulua:

*"Hiri-altzariak oinezkoentzako ibilbidearen luzetarako noranzkoan lerrokatuta antolatuko dira. Espalioen kasuan, **kanpoko ertzean jarriko dira, inoiz ez fatxadaren ondoan** eta, kasu guztietan, oinezkoentzako ibilbidearen zabalera librea 2,00 m-koa izango da gutxienez. Hektarea bakoitzeko 12 edo etxebizitza gutxiagoko dentsitatea duten urbanizazioetako espaloietan 1,50 m-koa izango da gutxienez."*

Interesdunak aurkeztutako dokumentazio grafikoaren arabera, baldintza hau ez da betetzen aipatutako kaleko eta ondoko kaleetako establezimenduetan; izan ere, fatxadetatik hurbil-hurbil dauden "upelekin", aulkiekin eta mahaiekin okupatuta daude. Horrela, ordenantza hori eta irisgarritasunaren araudia urratzen dira. Instalazio horien inguruan ostalaritza-establezimenduetako erabiltzaileak pilatzen direnez, oinezkoak eta auzotarrak ezin dira espazio horretatik igaro; espazio hori libre egon beharko zen, gutxienez, bi metroko zabalarekin fatxadaren alboan.

Aurrekarietan adierazi dugun bezala, udaleko idazkari nagusiak, 2016ko uztailaren 11n, errekerimendu bat bidali zien gunere horretako 10 establezimenduei; horrela, bide publikoan jarritako altzariak kentzeko eskatu zien, oinezkoentzako pasabide librea berma dadin, bi metrokoa fatxadarekiko.





Errekerimendu honek, formalki, ez ditu betetzen organo eskudun batek hartutako administrazioaren egintza baten gutxienerako betekizunak, ezta ebazpenak jakinarazteko errekeritutako gainerako formalitateak ere. Gainera, errekerimendua ez da bat ere zehatza, ez duelako adierazten errekerimendua betetzeko epea eta ez duelako esaten zehazki eta banaka zeintzuk diren establezimendu bakoitzak betetzen ez dituen eta egiaztatu diren alderdiak. Halaber, ez ditu adierazten hausten diren araudiaren artikuluko zehatzak.

Bestalde, errekerimenduak ohartarazten du zehapenak aplikatuko direla ez betetzearen ondorioz; hala ere, horrek ez du inola ere bermatzen espazio publikoa okupatzeko baldintzak benetan betetzen direnik. Beraz, ez da azpimarratzen agindutakoa betetzen ez bada instalatutako altzariak kenduko direla.

Horrela, udal ordenantzak berak prozedura arinak aurreikusten ditu baimenaren baldintzak betetzen ez dituzten edo baldintzarik ez duten altzariak kentzeko. Hala, 35. artikulua bide publikoan lizentziarik gabe instalatutako mahai hankabakarreko eta terrazak **aldez aurretik ohartarazi gabe kautelaz eta berehala kentzeko aukera** ematen du. Era berean, 36. artikulua ezartzen du, dagokion zehapen-espedientea izapidetzea gorabehera, instalazio osoa desmuntatu eta kenduko dela. Azkenik, ordenantzaren 39. artikulua betearazpen subsidiarioa aipatzen du, instalazioa kentzeko aginduari jaramonik ez egitekotan.

Laburbilduz, kexagileak hori betetzen ez zela salatu zuenetik ia bi urte igaro dira eta oraindik ez dugu ikuskapen zerbitzu eskudunaren balorazio-txostena jaso, salatutako alderdietan ordenantza betetzeari dagokionez. Gainera, kexagileak berak adierazi du, udal errekerimendua egin zenetik hamabost egun baino gehiago igaro ostean, egoera ez dela bat ere aldatu. Izan ere, okerrera egin du, uda delako.

4. Zentzu horretan, ez dakigu instalatzeko ordutegiak betetzen diren eta instalatutako terrazen altzariak kentzen diren. Hala, ez dakigu beste baldintza batzuk betetzen diren, adibidez, bide publikoa altzariekin okupatzeko debekua ostalaritza-establezimendua itxita dagoenean.
5. Bestalde, kexagileak berak adierazi duenez, ez da auzotar talde batek salatutako egoera bete, hau da, ostalaritza-negozioren barruan sortzen den zarata kalean entzun ez dadin beharrezko neurriak har daitezten, adibidez, atea eta leihoak ixteko edo irekidurak estaltzeko agintzea, auzokoei eragozpenak ekiditeko.

Zehazki, kexagilearen etxabea dagoen ostalaritza-establezimenduak baimen bat dauka; bertan neurri zuzentzaile hau agertzen da beren-beregi:

“7.: Leihoak soinua kanpora zuzenean ateratzeko bide bat ez izateko, horiek EZINGO dira erabili. Beraz, lokalari argiztapen naturala ematera





*mugatuko dira, fatxada nagusiko leihoa izan ezik, leiho gidariduna izan daitekeena, aurkeztutako dokumentazioaren arabera. **Hala ere, leiho hori SOILIK izango da erabilgarria jarduera publikora irekita ez dagoen orduetan aireztatzeko, betiere ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen badira**".*

Zalantzarik gabe, neurri zuzentzailearen zentzuak eta helburuak argi uzten dute establezimenduak leiho gidariduna itxi behar duela jarduera funtzionatzen ari denean.

6. Ebazpen honetan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat interesdunak aurkeztutako salaketei emandako tratamendu formala da. Gernika-Lumoko Udalak ez die salaketa horiei behar bezalako bidea eman. Gainera, egindako izapideek kexagilea egoera eztabaidagarri batean jarri dute eta hori ez zen beharrezkoa legearen ikuspuntutik.

Aurkeztutako dokumentazioan jaso den bezala, interesdunak lehenengo kexa aurkeztu zuen udalean 2014ko urriaren 14an. Idazki horretan, ordenantzaren 13. artikulua betetzeaz gain (bi metroko oinezkoentzako pasabide librea fatxadarekiko), adierazi zuen bere eraikinaren etxabea dagoen taberna-kafetegiak ez duela 7. neurri zuzentzailea betetzen, hau da, fatxada nagusiko leihoa aireztatzeko soilik erabiltzea, jarduerak publikoari zerbitzua emateko funtzionatzen ez duen orduetan.

Horren aurrean, 2015eko maiatzaren 18an, udalak kexagileak aurkeztutako "idazki-salaketan" aipatutako taberna kafetegiaren titularrari jakinarazpen bat bidali zion, bere izena eta abizenak beren-beregi adieraziz. Jakinarazpenak adierazten du izapide hau laburbiltzen dela, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 84. artikulua arabera, "ebazpen proposamena egin aurretik, espedientearen berri ematen da, 10 eguneko epean, ..., alegatu ahal izateko...".

Aipatutako Legearen 84.1. artikulua honako hau adierazten du:

"Prozedurak bideratu ondoren, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, interesdunei edo, dagokionean, beren ordezkari prozeduraren berri emango zaie, beti ere, 37.5 artikulua jasotako informazioak eta datuak salbuetsiz."

Oharra: Egia esan, gaur egun, informazio publikorako eskubidearen mugak gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 14. artikuluan ezartzen dira.

Zalantzarik gabe, aurkeztutako dokumentazioaren arabera eta ostalaritza-establezimendu horri bidalitako jakinarazpenaren testua kontuan hartuz, ez





da jaso udalak instrukziorik burutu duenik "idazki-salaketari" dagokionez, ezta prozedura bera hasi duenik ere, 30/1992 Legeak ezarritako terminoetan. Horrela, Legearen 68. artikulua ezartzen du espedienteak horrela hasten direla: ofizioz edo aldeak eskatuta. Aldi berean, Legearen 69. artikulua haxe ezartzen du:

*"1. "Prozedurak ofizioz hasiko dira **organo eskudunaren akordioarengatik**, bai ekimen propioarengatik edo goragoko aginduaren ondorioz, beste organoek eskaera arrazoitua eskatuta edo salaketarengatik".*

2. Prozedura hasteko erabakia hartu aurretik, eskumena duen organoak informazioaldia ireki dezake, dena delako kasuaren zernolakoak ezagutzeko eta prozedura hastea komeni den jakiteko.

Horrenbestez, salaketa batek ezin du, nolana ere, prozedura bat hastea ekarri; izan ere, udal organo eskudunak hasi behar du espedientea ofizioz, behin salaketaren arrazoa egiaztatuta (adibidez, udaltzaingoaren ikuskapen-txostenak edo espazio publikoaren erabilera baldintzak egiaztatzen dituenaren txostena).

Nolana ere, salatutako ostalaritza-establezimenduak, alegazioak aurkezteko emandako epean, idazki bat aurkeztu zuen eta ez betetze horiek ukatu zituen. Hala, adierazi zuen, besteak beste, tabernaren fatxadan dagoen leihoa ez dela publikoaren zerbitzurako erabiltzen, *"noizbehinka terrazako edalontziak kentzeko ireki den arren, leihoa aireztatzeko erabiltzen da"*. Udalak erakunde honi emandako dokumentazioaren arabera, alegazio-idazki honi ez zitzaion biderik eman; alegazioak berak neurri zuzentzailea ez dela betetzen adierazten du, edonola ere, ezin delako leiho gidariduna erabili jarduera publikora irekita dagoenean, ezta noizbehinka ere.

Azkenik, espedientean ez da jaso auzotarren salaketa jarraitu denik, ezta jardueraren baldintzak eta baimenak espazio publikoa terrazekin okupatzeko ezarritako betekizunak betetzen diren egiaztatu denik ere.

Horrek Euskadiko Toki Erakundeen 2/2016 Lege berria gogoraraztera eramane gaitu. Lege horrek herri bateko herritarren eskubide eta betebeharrak xedatzen ditu, besteak beste, espazio publikoko herritarren elkarbizitzari dagokionez eta gainerako pertsonen eskubideak errespetatzeari dagokionez, bai eta udal ondarearen erabilera arrazionalaren eta egokiaren inguruan. Era berean, herritarren betebeharrak eta erantzukizunak gidatuko dute, printzipioak diren aldetik, *"tokiko araugintza-ahala, politika publikoak, zehapen-motak eta hala badagokio, zehapenen aplikazioa eta espazio publikoa zaintzea, bizikidetzaren harremanak eta zerbitzu publiko jakin batzuk ematea xede duten udal-ordenantzetan araututako zehapen-prozedurei dagokienez"*. (44.3 artikulua).



Udalerriko herritarrek eskubidea daukate udalak administrazio jarduketa egikarrituko duela pentsatzeko, legea eta zuzenbidea betez, fede onaren eta bidezko konfiantzaren printzipioak errespetatuz, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3. artikulua ezartzen duenez. Printzipio horiek kearen edukira aplikatzen baditugu, ondoriozta dezakegu zuzenean ukitutako pertsonak bidezko konfiantza izango dutela, hau da, guztiek errespetutako dituztela indarreko espazio publikoaren bizikidetzara-arauek, eta ez errespetatzekotan, udalak beharrezko mekanismoak izango dituela horiek betetzera behartzeko.

7. Azkenik, erakunde honek udalak 2016ko uztailaren 11n guneko ostalaritza-establezimenduei egindako errekerimenduaren eduki formalaren beste alderdi bat nabarmendu nahi du. Errekerimendu horren testuak adierazten du, 68/2000 Dekretua eta ordenantza betetzeaz gain, Arartekoaren errekerimenduak ere bete behar direla. Horrela, ostalaritza-establezimenduei bidalitako idazki bakoitzari erantsi dio erakunde honek udalari egindako errekerimendua, erakunde honek egindako informazio-eskaerari ez erantzuteari buruzkoa (Arartekoaren 2016ko martxoaren 23ko errekerimendua).

Argi dago ez dela Arartekoaren eginkizuna ostalaritza-establezimenduei errekerimenduak egitea, baizik eta dagokion administrazioarekin egiaztatzea nola betetzen ari den indarreko legeria udalak jarduketarik burutu ez duela azaltzen duen kexa batean aurrean. Edonola ere, udalak ez ditu bere ahalmenak gauzatzen Arartekoaren informazio-eskaera batengatik. Izan ere, esku hartu behar du bere eskumenak eta legezko betebeharrak egikaritzuz, emandako baimenen eta lizentzien edota udal ordenantzen baldintzak behar bezala betetzeko eskatuz.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Dagozkion izapideak egin ostean, behar bezalako bidea emateko jarritakoa salaketei, erakunde honetan kexa aurkeztu zuen pertsonak jarritakoei eta gunehorretako auzotarrek jarritakoei ere bai.
2. Nolanahi ere, segimendu eta kontrola burutzeko, salatutako egitateen arabera, ukitutako oinezkoentzako guneko ostalaritza-establezimenduek Terraza eta Mahai Hankabakarrekoak arautzen dituen Udal Ordenantza eta baimendutako jarduerak errespetatu behar dituzten neurri zuzentzaileak betetzen dituztela egiaztatzeko.

